BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3142

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 7koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, 2012. urtean egiten diren edo hasten diren kategoria absolututan nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten duen Kulturako sailburuaren 2012ko urriaren 2ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntzen berri jakinarazten duena.

AURREKARIAK

1.– 2012ko urriaren 26an, EHAAn argitaratu zen 2012. urtean egiten diren edo hasten diren kategoria absolututan nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituen Kulturako sailburuaren 2012ko urriaren 2ko Agindua.

2.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.2 atalean ezarritakoari jarraituz, laguntzak emateari edo ukatzeari buruzko ebazpenak, kasuan kasuko laguntzak arautzen dituzten arauek besterik esaten ez badute behintzat, EHAAn argitaratu beharko dira.

Horiek horrela izanda,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kulturako sailburuaren 2012ko urriaren 2ko Aginduaren babesean ezarritako diru-laguntzen onuradunak eta emandako diru-laguntzak (I. eranskina) eta ezezkoa jaso duten eskabideak (II. eranskina) argitara ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 7a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

A: Entitate eskatzailea
B: Diruz laguntzen den jarduera
C: Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa (€)

A	B	C
Abadiñoko Soka Tira eta Herri Kirol Taldea	Campeonato del Mundo de Sokatira Indoor	23.681,40
Asociación Club Deportivo Ciclista Hirumet Taldea	Copa del Mundo Ciclo cross y BTT	13.932,05
Badaiotz Kirol Taldea, Asoc. Deportiva	Cto. Mundo de Sokatira Indoor	11.039,04
Club Atlético Bera Bera Rugby Taldea	Competición Europea Champions Balonmano Femenino	28.087,69
Club Deportivo Basket Bilbao Berri, .S.A.D.	Eurocup 2012	25.747,69
Club Deportivo Ciclista Velódromo Duranguesado	Copa del Mundo Pista Uci	27.975,90
Club Deportivo Motociclista Gernika Off Road	Campeonato del Mundo Motocross (MX3)	17.733,10
Club Hielo Txuri Berri	Curling Champions Tour 2011-2012	1.657,36
Club Zuzenak	Torneos internacionales de tenis de mesa adaptado	3.116,00
Club Zuzenak	Pruebas Internacionales de ciclismo adaptado	539,72
Donosti Berri Elkartea	Copa del Mundo Ciclismo en pista	18.477,12
Euskal Bizikleta Kirol Elkartea	Carreras femeninas calendario UCI	10.601,31
Gaztedi Club	Campeonato del Mundo de Sokatira Outdoor	23.681,40
Goiherri-ko Kirol Elkartea de Erandio	Campeonato del Mundo de Sokatira Outdoor	23.681,40
Gros Xake Taldea	EuropeanChess club cup	18.000,00
Ibarrako Herri Kirolak Belabieta Sokatira Taldea	Campeonato del Mundo de Sokatira	18.795,11
Leka Enea Tenis De Mesa	Copa Europa de Clubes	25.389,18
Real Sociedad de Fútbol, S.A.D.	Eurohockey Club Champions Club	3.000,00
Saski Baskonia, S.A.D.	Euroliga 2012	29.737,64
Sociedad Ciclista Duranguesa	Carreras Femeninas Calendario UCI	23.419,26
Sociedad Deportiva Ugeraga	Carreras femeninas calendario UCI	21.707,63
	GUZTIRA	370.000,00

II. ERANSKINA

EZEZKOA JASO DUTEN ESKABIDEAK

A	B	C
Gernika Rugby Taldea	Amlin Challenge Cup 2012-2013	Epez kanpo eskaera aurkeztu izana
Sokarri Arrigorriagako Herri Kirol Taldea	Campeonato del Mundo de Sokatira	Epez kanpo eskaera aurkeztu izana